

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GENEROAREN ARABERAKO
ERAGINAREN EBALUAZIOA
KULTURAN



2018

“Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa Kulturaren esparruan”

Dokumentu hau Red2Red Consultores enpresak egin du Emakunderentzat eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren berdintasunerako administrazio atalaren laguntza jaso du.

2017ko abendua

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 1. TESTUINGURUAN KOKATZEA | 4 |
| 2. GENEROAREN ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO ALDERDI GILTZARRIAK..... | 7 |
| 2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN | 7 |
| 2.2. BERDINTASUN EZAK BALIABIDEAK LORTZEKO ORDUAN | 12 |
| 2.3. DESBERDINTZAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE HARTZEAN | 20 |
| 2.4. ARAU SOZIALEN ETA BALIOEN ERAGINA | 22 |
| 2.5. BERDINTASUNAREN ARLOKO BERARIAZKO AGINDUAK: | 25 |
| 3. LEGERIA | 27 |
| 4. DATUEN ITURRIAK..... | 28 |
| 5. ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK | 30 |
| 5.1 AZTERLANAK ETA TXOSTENAK | 30 |
| 5.2 WEB BALIABIDEAK | 30 |

1. TESTUINGURUAN KOKATZEA

Kultura funtsezko eskubide bat da eta gizarte-eraldaketarako tresna bat. Gainera, funtsezko motorra da gizarte orotan, izan ere, oso ezberdinak baina elkarren osagarri diren bi elementu barneratzen ditu: alde batetik, kultura-jardueraren emaitzak gizarte nortasun eta kohesioaren iturri dira, baterako ideiak eta iruditeriak eraikitzeko espazio dira eta beste alde batetik, gero eta baliabide ekonomiko gehiago sortzen dituen ekoizpen sektore bat da (Balio Erantsi Gordinaren % 2 Euskadin).

Kultura hitzaren barnean herri baten jardunaren milaka adierazpen sartzen dira. Horrenbestez, ezinbestekoa da jorratzeko esparruak (ikusmen-arteak, ikus-entzunezko arteak, arte eszenikoak, literatura edo musika) zedarritzea.

Kulturaren sektorea hazi egin da azken hamarkadetan garapen-, heziketa- eta ongizate-indizeek gora egin ahala. Haatik, hazkunde hori ez da proportzionaltasunez eman gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez, eta **hala kulturaren ekoizpenean nola kontsumoan desorekak handiak dira**. Bereziki garrantzitsua da kultura-lanetan emakumeak irudikatzen moduan erreparatu: oro har, **irudikapen horietan emakumeek gizarlean duten presentzia eta zeregina gutxietsi** egin ohi da eta rola estereotipatzeko joera izan ohi da. Horrela, ikuspegi androzentriko bat nabarmentzen jarraitzen da, non gizonak diren subjektu aktiboak.

Genero-ikuspegi batetik, kultura-ekoizpenaren esparruan azpimarragarria da **maila kuantitatibotik so emakumearen presentzia zabala izan arren, presentzia hori murriztu egiten dela maila kualitatiboan**. Hau da, emakumearen presentzia adierazgarria duen sektore bat da, baina desoreka nabari da kultura espezializazioetan prestatzen den emakume kopuruaren eta sektorean enplegura jauzi egiten dutenen artean. Jauzi hori are nabariagoa da erantzukizuneko postuetan edo erabakiak hartzeko postuetan, emakumeen presentzia oso urria dela ikusten baita. Horrela, Arte Ederretan graduatuen artean % 65 emakumeak badira ere, eta erakusketetan publikoaren % 52 emakumea bada ere, arte-azoketan ordezkatutako artisten artean % 25 eskas dira emakumeak. Ez dirudi egoera asko aldatu denik 1985ean New Yorken sortutako *Guerrilla Girls* artista feministen taldeak, artean emakumearen presentzia bultzatzeko asmoz, adierazi zuenetik emakumeak museo-espazioetan sartzen zirela soilik obren inspiraziorako "subjektu - objektu" edo zentroetako bisitari modura. Ildo horretatik, **kultur arloko zerbitzu eta baliabideetarako** irisgarritasuna neurtzeko datuek adierazten dutenez, emakumeek gehiago irakurtzen dute, liburutegi eta erakusketak gehiago bisitatzen dituzte eta zinema eta antzokira maizago joaten dira. Herri kultura ere ez dago desberdintza horretatik at: EAEn (Euskal Autonomia Erkidegoa) emakumeak bereizketa-egoerak pairatu ditu. Hori da Irun eta Hondarribiko Alardeen kasua, gerora aztergai izango dena.

Desberdintza horien atzetik hainbat arrazoi daude. Zalantzarik gabe **ondoretasun patriarkala** oso indartsua da eta emakumeen gizarte-mugikortasuna kontrolatzeko

modu gisa funtzionatzen du. Baina egiturazko baldintzetan ere erreparatu behar da, beste alor batzuetan emakumeek duten posizioan eragina duten gizarte-dinamikak nola kulturaren esparruan ere hautematen diren ikusi behar da. **Lanaren sexuaren araberrako banaketak** eta gizon eta emakumeen artean **denboren erabilera ematen den banaketa ezberdinak** azaltzen dute oraindik zergatik diren emakumeak zaintza-lanetan nagusiki aritzen direnak: etxeaz, seme-alabez eta adin nagusiko pertsonen arduratzen dira, eta eginkizun horietan gizonen baino denbora askoz ere gehiago ematen dute egunean. Gizonen kasuan, aldiz, denbora gehiena etxetik kanpo banatzen dute batez ere, lanean edo norberaren aisian.

Zaintza-lanetan eta etxeko lanetan baterako erantzukizunik ez izatean oinarritzen den egiturazko egoera horren ondorioz, emakumeek laburragoak eta intentsitate baxuagokoak diren karrera profesionalak egiten dituzte. Horrek, aldi berean, azalduko luke kulturaren sektorean erabilgarri dagoen emakumeen lan-eskuaren eta enpleguan ageri den errealitatearen arteko desoreka, eta esparru profesional horretan emakumeak duen presentziaren eta erantzukizuneko postuetan duenaren arteko aldea.

Genero-berdintasuna lortzeari dagokionez eragina duen beste elementu bat soldatar-arrakalarena da. Lanaren sexuaren araberrako banaketak eta genero arloko estereotipo eta rolerak, emakumeen ibilbide profesionala galgatzeaz gain, kulturaren bidezko beren garapen profesionala eragozten dute eta, are, herri adierazpen batzuetan berdintasunezko partaidetza ere eragotzi ere bai, esate baterako, aurrerago azalduko den Alardeetako jaien kasuan. Oraindik **androzentrismoa** da nagusi kulturaren esparruko agendetan; unibertsitatea, erakunde politikoak, kultura-erakundeak, museoak, antzerkiak, jaialdiak eta EAEn antolatzen diren kultur eta arte arloko ekitaldi gehienak gizonen zuzenduta daude. Horren ondorioz, are zailagoa da hainbat mendetako dinamika haustea, non kultura gizonen bitartez kontzeptualizatu eta eraiki baita.

Ikusgarritasunik ez horren ondorioz kulturaren emakumeen presentziari dagokionez dagoen arazoa areagotu egiten da eta emakumearen ibilbide profesionala oztopatzen du horrek; izan ere, hori da artisten horren ezagunak eta beren lanak horren hedatuak ez izatearen arrazoietakoa bat eta, horrenbestez, **askoz ere gutxiago dira** oraingo eta etorkizuneko belaunaldiak **erreferente gisa dituzten emakumeak**. Gainera, artista horiek maiztasun gutxiagoz lortzen dituzten **beke edo sariak** eta proiektu txikiagoen alde egiteko joera dutela ikusten dugu. Horrela, produkzio handietan, ikusgarritasun gehien duten horietan, eta, beraz, genero aldetiko irudikapenak sendotzeko lagungarri direnetan, emakumearen presentzia urria da.

Arestian adierazi den moduan, gizonekin alderatuta emakumeak aisian denbora gutxiago ematen badute ere, estatistikek adierazten dutenez, emakumeak dira kultura gehien kontsumitzen dutenak. Haatik, kontuan izan behar da kontsumo horrek intentsitate handiagoa izan ohi duela etxean egotearekin bateragarri diren alorretan, espazio publikoetan egiten den aisiaren kontsumoarekin gertatzen denaz alderatuta. Horrela, esate baterako, emakumeek gehiago irakurtzen dute eta gizonak gehiago joaten dira rock kontzertuetara. Horrela, kultura ulertzeko moduak betikotu egiten dira,

eta zenbait alor emakumeekin lotzen dira. Gainera, ezinbestez nabarmendu behar da kultura gizonak adina edo gehiago kontsumitzeko emakumeek egin behar duten ahalegina askoz ere handiagoa dela, izan ere, **desabantailazko egoera bikoitzetik** abiatzen dira, denbora libre gutxiago izateaz gain ahalmen ekonomiko txikiagoa baitute.

Gainerakoan, genero-berdintasunerako **araudi ezberdinak** (Gida honetako 3. atalean aipatzen direnak) ez dira aplikatzen kultur esparru gehienetan. Ikerketa honetarako kontsultatu diren datuek adierazten dutenez, kargu politikoetan eta sariketarako epaimahaietan paritateranzko joera dago, baina errealitatearen lurzorua zapaltzen denean argi dago egiazko berdintasuna oraindik oso urrun dagoela. Sektore batzuetan azken urteotan joera zerbait zuzendu dela ikus daiteke, baina ezinbestekoa izango litzateke estatistikak egiten jarraitzea joera hori mantendu egiten den ala soilik unean-uneke piko bat izan ote den ikusteko. Adibide modura baliagarri izan daiteke ikustea ibilbide luzeko erakundeetan, esate baterako museoetan edo orkestra eta antzokietan, emakumeek zuzendaritzako postuetan duten presentzia ia ezdeusa dela.

Horrenbestez, badirudi derrigorrezkoa dela adierazitako esparru bakoitzean dauden desberdintza-mailetan erreparatzea: kulturaren ekoizpena, kultur arloko produktu eta zerbitzuen kontsumoa, eta arte eta kulturako irudikapenak. Desberdintza horien jatorriak eta horiek agertzeko moduak ulertzea lagungarri izango da emakumeek protagonismo gehiago har dezaten eta kultur arloko politiken diseinuan partaidetza izan dezaten, Genero Berdintasunerako Europako 2010-2020 Ituna bete nahi bada (eta ahotsa eman nahi bazaie eta beren historiaren protagonista eta narratzaile izatea nahi bada).

2. GENEROAREN ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO ALDERDI GILTZARRIAK

2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN

Sarreran aipatzen zen moduan, kultur arloan genero aldetiko ezberdintasunak handiak dira: emakumeek presentzia adierazgarria dute publiko kontsumitzaile gisa, kulturaren sektoreko lanpostuetan ia paritatezko mailak ematen dira, eta, halere, lan-merkatuan duten pisua murriztagoa da ia sektore guztietan, bereziki erantzukizuneko eta erabakiak hartzeko postuetan. Are txikiagoa da oraindik sortzaile modura duten presentzia kultura hedatzeko zentroetan, esate baterako museo, antzoki edota zinema-aretotan. Desberdintza hori kulturaren arloan sortzen diren irudikapenetan islatzen da: kultura produktuetan agertzen diren ideia eta irudiek emakumeek gizartean duten zeregina minimizatu egiten dute eta mendeko posizioetan kokatzen dituzte behin eta berriz.

- **Kultur ekoizpena**

Arte eta Kultura Industrien 2015eko Estatistika Txostenaren arabera, emakumeek kulturaren sektorean duten **presentzia** % 47koa da, EAEko kulturaren sektoreko **lanpostuetan** erreparatuz. Emakumeak gehiengo dira ikusmen-arteetan enpleguan (% 58,7) eta literaturaren esparruan, hala argitaletxeetan (% 61,9) nola liburu-dendetan (% 66,7). Argitaletxeetan sinatutako kontratuen erdia baino gehiago emakumeek sinatu zituzten. Eta arte eszenikoetan genero aldetiko oreka ia lortu egiten bada ere (% 48,1), emakumearen presentzia txikiagoa da ikus-entzunezko arteetan (% 39,7) eta musikan (% 41,1).

Haatik, ez da korrelaziorik ematen emakumeek kulturaren sektoreko lan-merkatuan duten irisgarritasunaren eta kulturaren esparru bakoitzean duten **ikusgarritasunaren** artean. EAEko museoak eta arte-zentroak erakunde publikoak badira ere, eta proposamenak eratzerakoan Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 04/2005 Legeko berdintasun-manuak jarraitu beharko balira ere, argi dago desberdintza oraindik agerikoa dela. 2015ean EAEko Museoek antolatutako 24 erakusketetatik, 7 baino ez ziren izan (% 18,4) artista emakumeei modu eksklusiboan eskainiak; portzentaje hori % 32,2koa da Arte-zentroetan, azken horietako ezaugarria egitura moderno, arin eta dinamikoagoa izanik. Hala zentroetan nola museoetan antolatutako erakusketa mistoei begira, gizonetzko artistak gehiago izan dira beti.

Museo eta arte-zentroetan bi sexuek duten **presentziari dagokionez ematen den ezberdintasunak** eragin nabaria du emakumeen lana eta obra erakusterako orduan. Museoek beste erakusketa-espazio batzuek baino prestigio eta ikusgarritasun handiagoa dute, eta, oro har, aurrekontu handiagoak izaten dituzte. Horri esker, anbizio handiagoko ekoizpenak daukate eta komunikazio-kanpainetarako bitarteko gehiago dituzte tokiko mailan, maila nazionalen eta, are, nazioartean. Orokorrean, zenbat eta aurrekontu handiagoa, orduan eta ikusgarritasun handiagoa. EAEko museo

eta arte-zentro ezberdinetan egindako erakusketei buruzko “Emakumeen presentzia ikusizko eta ikus-entzunezko arteetan” izeneko 2016ko ikerketa honen arabera, emakumeen erakusketen ekoizpenaren batez besteko kostua 18.360 eurokoa zen, eta gizonena 29.880 eurokoa, ia bikoitza. Aurrekontuko zuzkidura handiago horrek ere eragina dauka katalogoaren ekoizpenean. Horrek kritikari (gehienak gizonak) eta gainerako profesionalen artean lana hedatzea ahalbidetzen du. Katalogoa, gainera, tresna ahaltsua da artearen esparrua legezatu eta bultzatzeari begira. Horrez gain, nabarmendu behar da museoetan osatzen dela arte-bilduma, eta, horrenbestez, hura da lurralde bateko irudia kolektiboa eta historiaren baterako ikuspegia islatzen duena.

Zinemagintzaren esparruan ez dago film luzeen ekoizpenari buruzko datu zehatzik EAEn. Baina, adibide gisa, Estatu mailako datuei erreparatzen badiegu, 2017ko Goya sarietarako hautagaitzetan aurkeztutako filmen artean % 20 baino gutxiago ziren emakumeek zuzendutakoak. Eusko Jaurlaritzak jaialdi eta sariketetan aurkezteko eratzen duen Kimuak film laburren katalogoan, 2014 eta 2016 bitartean hautatutako 21 piezetatik soilik 5 izan ziren emakumeek zuzendutakoak, % 24.

Literaturaren esparruan kontsumitzaileen portzentajearen (emakumeak dira nagusiki liburuak erosten dituztenak) eta sektorean duten presentziaren arteko aldea deigarria da. Euskadirako datu espezifikorik gabe, Estatu mailako zerrendek adierazten dutenez, Nielsen aholkularitzaren arabera, Espainian 2016an gehien saldutako fikziozko hamar liburuetan erreparatuz, lau emakumeek idatzitakoak ziren eta sei gizonek. Zerrendako zortzi egile espainiarren artean, hiru emakumeak ziren eta bost gizonak. Euskal idazle emakumeen aitorpena testuinguruan kokatze aldera, adierazi behar da Euskaltzaindian 5 emakume daudela 27 euskaltzainen artean, hots, guztien % 27, Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademan emakumeen ordezkari baina (% 15) portzentaje dezente handiagoa.

Musikan ere emakumeen partaidetza, kasu honetan, instrumentista modura, txikiagoa da; % 20 ingurukoa da Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eta Bilboko Orkestra Sinfonikoaren kasuan, eta portzentaje hori mantendu egin da azken bi hamarkadetan. Txosten batzuetan adierazten denaren arabera, Donostiako Orfeoia paritatearen kuotak betetzen dituen erakunde bat da, emakumeen portzentajea % 50tik gorakoa baita. Hori, oro har, musika bokal osoari dagokion errealitate bat da, izan ere, emakumeen ahotsak gehiago dira, ahotsen tonuari dagokionez oreka bat eskuratzeko xedez. Hiri musika herrikoari dagokionez, arazoa antzekoa da. Sarrerak online saltzeko Ticketea plataformak 2017ko martxoan adierazten zuenez, Espainiako musika-jaialdi garrantzitsuenetako programazioan soilik % 15 dago emakumez osatutako talde batekin edo buruan emakume bat duen talde batekin osatua, eta Gasteizen ospatzen den Azkena Rock jaialdiaren adibide zehatza adierazten zen; izan ere, jaialdi horren programazioan emakume bakarra ageri zen, Buck and Evans taldeko abeslaria, hain zuzen.

Arte eszenikoei dagokienez, antzerkian zineman dauden arazo berak ageri dira: emakumezko publiko gehiago, baina emakumeek idatzi eta zuzendutako lan gutxiago. Clásicas y Modernas Elkarteak, Kulturen Genero Berdintasuna bultzatzeko elkarteak, 2015/2016 denboraldiari buruzko zenbait datu argitaratu ditu berriki. Bertan adierazten

denaren arabera, Espainiako Estatuan antzeztutako lanen % 18 baino ez zituzten emakumeek idatzi eta % 22 izan ziren haiek zuzenduak. Haatik, dantzan proportzio hori nabarmen handiagoa da: irudikatutako koreografiaren % 44an egilea emakumea zen. Dena den, hori ez dator bat dantza ikasketak egiten dituzten edo dantzako gorputzeko kide diren emakumeen portzentaje handiekin.

Desberdintzak are nabariagoak dira EAEn **kultura herrikoia**ren esparruan: badirudi tradizioaren pisua oztopo bat dela, esate baterako, emakumeek bertsolari txapelketan parte hartzeari dagokionez, izan ere, soilik emakumeen % 20 dira txapelketa horietan parte hartzen dutenak, nahiz eta esparru horretan haien presentzia igoz doan pixkanaka. Desoreka Alardeetan heltzen da muturrera. Irungo Alardean Frantziako tropen aurka 1522an lortutako garaipena ospatzen da, eta EAeko festa jendetsuenetakoa bilakatu da. Aitzitik, emakumeen parte-hartzea kantinerak irudikatuzera mugatzen da, eta soldatu izatetik baztertu egiten dira. 2017an 19 kantinera eta 8.000 soldatu irten ziren. Alarde Mistoan 1998. urtean sortu zen eta 1.000-1.500 pertsona inguruk parte hartzen dute. Haatik, Alarde hau arbuiatu egiten dute irundar askok, eta, gizonezkoen Alardean ez bezala, errejidoak ez du harrerarik egiten Udaletxean. Hondarribiko Alardean Frantziako tropek 1638. urtean egindako setioaren aurrean herriak erakutsitako erresistentzia ospatzen da. Bertan 5.000 gizonek eta 20 kantinerak hartzen dute parte: Alarde mistoan 500 pertsonak parte hartzen dute, gehienak emakumeak.

Dantza herrikoien esparruan, EAEn gehien hedatutako adierazpideetako bat, ez dago emakumeen parte-hartzeari buruzko datu gehiegirik, baina dantza horietako askotan jazoera historikoak ospatzen direnez edo kofradia profesionalen bateko patriari egindako gorespenerako dantzak direnez, tradizionalki gizonek interpretatu izan dituzte eskusiboki. Haatik, XX. mendearen erdialdetik gaurdaino gizonek dantzarekiko agertzen duten interesak behera egin du. Horren ondorioz, emakumeek txanda hartu behar izan dute derrigor, besteak beste, Arizkungo Sagar Dantzan, Uztai handi dantzan edo Zinta dantzan. Gaur egun, Kultura Ohituren Paneleko 1. Sortako datuen arabera, emakumeen % 16,67k eta gizonen % 5,88k hautatzen dute dantza kultur jardun modura beren denbora librean.

- **Emakumeek kulturaren duten ordezkariak**

Kulturaren generoaren eragina aztertzeke ez da soilik behatu behar emakumeek sektore bakoitzean duten presentzia. Era berean, ezinbestekoa da **diziplina ezberdinetatik egiten diren emakumeen ordezkariak** ezberdinak aztertzea. Kulturatik abiatuz eraikitzen da herrialde baten irudia eta kontakizun historikoa. Hori dela eta, funtsezkoa da kultur adierazpen ezberdinetan igorri ohi diren mezuetan erreparatzea. **Ikus-entzunezko arteen** sektorea bereziki garrantzitsua da; izan ere, gizarte mailan partekatzen diren ordezkariak asko sortzen dituen sektore bat da. Gainera, herritar portzentaje handiago batengana iristen da, masa-hedabideetatik hedatzen baita. Zinemak edo antzerkiak diotenari erreparatuz Estatu osoaren profil bat marrazten badugu, Espainian emakume gutxiago egongo lirateke gizonak baino, % 13 gutxiago, eta oso gutxi izango lirateke independenteak eta protagonistak liratekeen emakumeak

eta 45-65 urte bitarteko emakumeak desagertu egingo lirateke ia, nahiz eta horietako zenbait aurrerago berriro agertu amona kuttunak irudikatuz.

Espainiako zinemagintzako fikzioan ikus daitekeenez, 2014-2016 bitartean ekoiztako filmetako pertsonaien artean % 37,8 izan ziren emakumeak. Emakumeen presentzia paper protagonistetan % 34koa izan zen. Desberdintza horrek gora egiten du aktoreen adinak gora egin ahala: 45-66 urte bitartean portzentajea % 23,9ra jaisten da, eta 65 urtetik aurrera % 19,3ra. Desberdintza horiek mantendu egiten dira telebista-saioretan, nahiz eta emakumeen presentzia hazten ari den geldiro (% 44,7).

Emakumeen ikusgarritasun gutxiago hori **arte eszenikoetan** ere ematen da, Arte Eszenikoetako Berdintasun txostenaren arabera; Clásicas y Modernas Elkarteak egindako Zentro Dramatiko Nazionaleko programazioaren eta zuzendaritza-taldean analisian, 2013/2014 denboraldian emakumeek interpretatzen dituzte paper guztien % 41, eta gizonak % 59. 2017ko MAX sarietan, sari mistoetarako emakume hautagaiak 11 izan ziren, 28tik (% 40). Dantzan soilik izaten dituzte emakumeek paper protagonistak, eta gizonak baino paper gehiago izaten dituzte diziplina horretan.

Gainera, nabarmendu behar da ikus-entzunezkoaren sektorean emakumeen interpretazio gehienak berezko nortasunik gabeko pertsonaiekin datozela bat: gizonetzkoen andregai, emazte edo amak, eta prostituta asko. Haatik, profesional, polizia, suhiltzaile edo medikuen zereginetan gizonetakoak aritu ohi dira. **Ikusmen-arteetan** ordezkariak ikerlan luze baterako emango luke, baina historian emakumearen irudia erlijiozko iruditeriarekin oso lotuta egon da alde batetik, eta, beste alde batetik, asko dira emakumea gaizkia, bizioa dela irudikatuz agertzen duten lanak. Halaber, nabarmendu behar da artearen esparruan agertzen diren pertsonaia biluzien % 85 emakumeak direla. **Literaturaren esparrua** artistikoa bezain zabala da, eta EAEn, nagusiki gizonetako izan den tradizio batek izandako pisuaren ondorioz, emakumezko protagonistaren zereginari so, hainbat hamarkadatan emakume birjina eta emakume bekataria ipini izan ditu aurrez aurre, edo emakumea tradizioen eta hizkuntzaren jagole gisa azaldu da. 60ko hamarkada iritsita euskal literatura modernizatu egin zen eta pertsonaia garaikideago eta konplexuagoak agertu ziren. Generoari buruzko ikerketarik ez dagoelarik, 80ko eta 90eko hamarkadetan jaiotako idazleak kontuan hartuta, pentsatzekoa da literaturan emakumeak duen ordezkariak gizarte-errealitatearekin hurbilago dagoela.

- **Kulturaren kontsumoa**

Emakumeek kultur ekoizpenean presentzia eskasa badute ere eta kulturaren emakumeen ordezkariak urria bada ere, beraiek dira kulturaren kontsumoan protagonismo nagusia dutenak. 2016ko Kultura Ohituren Paneleko (Kulturaren Euskal Behatokia) datuen arabera, emakumeek gizonak baino **kultura gehiago kontsumitzen dute**. Urtean 8,75 liburu irakurtzen dituzte (gizonak 4,59) eta liburutegietara gehiago joaten dira (urtean 3,70 bider eta gizonak 2,48 bider). Ezberdintasunak ez dira horren nabariak zinemara (3,71 vs 3,63), ikuskizunetara (3,22 vs 2,89) edo erakusketetara (2,78 vs 2,65) joateari dagokionez, nahiz eta emakumeen presentzia handiagoa izan.

Bestalde, gizonak gehiago joaten dira kontzertuetara (3,68 vs 3,22), bideo-jokoetan emakumeak baino gehiago jokatzen dute (bikoitza) eta interneten film, telesaio edo bideo gehiago ikusten dituzte (astean 5,10 eta emakumeek astean 4,84).

Irakurketan eta liburutegietarako bisitetan ematen da, kultur jardueri dagokionez, alderik handiena generoaren arabera. Irakurketa kontsumitzeari dagokionez, emakumeek ageri dute nagusitasunaren azalpena izan daiteke etxean, seme-alaben zaintzan nahiz senideen zaintzan denbora gehiago ematen dutela. Liburutegietarako bisitak, aldi berean, irakurketarekiko zaletasun handiagoarekin, liburuen mailegua doan izatearekin eta liburutegietako jarduerekin justifika daiteke, eta baita liburutegira joatea seme-alabak zaintzen diren bitartean egin daitekeen kultur jarduera bat delako ere.

EAEko Denboraren Aurrekontuei buruzko datuek erakusten dutenez, gizonek denbora gehiago ematen dute aisia aktiboan. Hala, astean batez beste 3,37 ordu ematen dituzte kirolean eta txangoetan, eta emakumeek 2,12, Eustat erakundearen Aisia Aktiboko Denboraren Erabilerari buruzko 2013ko inkestaren arabera.

| KULTURAREN KONTSUMOA SEXUAREN ARABERA EAN, 2016 | | |
|---|-----------|---------|
| | EMAKUMEAK | GIZONAK |
| Azken urtean irakurritako liburuak | 8,75 | 4,59 |
| Zinemara joatea (urteko batez bestekoa) | 3,71 | 3,63 |
| Kontzertuetara joatea (urteko batez bestekoa) | 3,22 | 3,68 |
| Ikuskizunetara joatea (urteko batez bestekoa) | 3,22 | 2,89 |
| Erakusketak ikustea (urteko batez bestekoa) | 2,68 | 2,65 |
| Bideo-jokoetan jokatzea | 1,87 | 3,69 |
| Etxean filmak eta telesaioak ikustea | 4,84 | 5,1 |

Iturria: EUSTAT. Denboraren Erabileren inkesta

Kulturaren kontsumoan, hein handi batean, aldeak oso txikiak badira ere, berriro aipatu behar dugu emakumeak desabantaila bikoitz batetik abiatzen direla. Alde batetik, aisialdirako denbora gutxiago dute gizonek baino. Eta beste alde batetik, ekonomikoki baliabide gutxiago dituzte soldata-arrakalaren ondorioz. Beraz, agerikoa da emakumeek kultura kontsumitzeko prestutasun eta interes handiagoa dutela. Eta kontsumitzaile gisa gehiengoa badira ere, deigarria da gizonak izatea kultur arloko programazioak erabakitzen dituztenak eta adierazpide gehienetan protagonista eta ekoizle izaten direnak. Horrenbestez, argi dago emakumei ez zaiela uzten erabakitzen zer kontsumitzen duten eta zer-nola ordezkatuak izan nahi duten.

2.2. BERDINTASUN EZAK BALIABIDEAK LORTZEKO ORDUAN

Unibertsitateko ikasketa gehienetan gertatzen den moduan, hala EAEn nola Estatuko gainerako lurraldean, kultur arloko lanbideekin lotutako arte eta humanitate ikasketetako ikasle gehienak emakumeak dira, eta joera hori mantendu egiten da azken hiru hamarkadetan. Haatik, emakumeak oraindik gutxiengoa dira lanbide teknikoetarako ikasketetan.

- **Hezkuntza eta prestakuntza**

Kultur arloko jardun eta industriarekin zerikusi zuzena duten goi mailako ikasketa guztietan emakumeak gehiengoa dira, eta zenbait kasutan portzentajea % 70etik gorakoa ere bada. Arteetan, **ikusizko artistek** beren prestakuntzarako gehien hautatzen duten karreran, emakumeen batez bestekoa % 67,3koa da bertan eskaintzen diren hiru adarretan. Artearen Historian, erakusketa eta ekitaldietako komisariotzarako eta museo eta erakundeetako zuzendaritzarako atea irekitzen dituen prestakuntzan, emakumezko ikasleak % 70,3 dira, *Cifras 2016* dokumentuko datuen arabera. Emakumeak eta Gizonak Euskadin.

Emakumeek ikusmen-arteetan duten Presentziari buruzko ikerketaren arabera, **ikus-entzunezko Artean**, 2014/2015 ikasturtean zehar unibertsitate-graduon matrikulatutako ikasleen artean emakumeen pisua % 60,3koa izan zen. Proporzio hori modu adierazgarrian murrizten da sektorearen enplegu teknikoetara gehiago bideratuta dauden lanbide heziketako zikloen kasuan. Hori kultur arloko patroia jakin batzuekin dago zuzenean lotuta, zeintzuen arabera lanik gogorrenak (kamerak, soinu eta argiztapen teknikariak, ekipo handi eta astunak mugitu behar baitira) gizonentzat direla dirudien. Ikus-entzunezkoen prestakuntza-zikloetan emakumeen presentzia % 30ekoa baino ez da.

Musikari dagokionez, EUSTAT erakundearen estatistiken taulek erakusten dutenez, 2015/2016 ikasturtean zehar 2.749 pertsona matrikulatu ziren musika-ikasketetan EAEn. Horietatik 1.199 (% 43,6) gizonak ziren eta 1.550 (% 56,40) emakumeak. Musika-orkestretan emakumeek duten presentziari buruzko estatistiketan frogatu ahal izan den moduan, portzentaje horiek ez datoz bat laneratzearekin. Estatistika berdinek agerian uzten dutenez, **dantzako** ikasketa artistikoetan matrikulatutako 107 pertsonetatik, 11 gizonak ziren eta 96 emakumeak: ikasleen % 90 emakumeak dira. Hemen ere nabariak dira genero aldetiko aurreiritziak; izan ere, dantza ikaskuntza goiztiarra eskatzen duen diziplina bat da eta gutxi dira beren seme-alabak txikitatik jardun horretan aritzera adoretzen dituztenak. **Arte Dramatikoko** ikasketa artistikoei dagokienez, zenbakiak erakusten dutenez, 15 ikasletatik 5 gizonak dira eta 10 emakumeak.

| Unibertsitate-ikasketak EAEn, % | Emakumeak | Gizonak |
|---------------------------------|-----------|---------|
| Arteak | 67,3 | 32,7 |
| Artearen Historia | 70,3 | 29,7 |
| Ikus-entzunezkoak | 60,3 | 39,7 |
| Musika | 56,4 | 43,6 |
| Dantza | 90 | 10 |
| Antzerkia | 66,6 | 33,3 |

Iturria: guk geuk egina *Cifras de Mujeres y Hombres* dokumentuko datuen arabera. EAE, 2016

- **Bekak, diru-laguntzak eta laguntzak**

Laguntzak eta diru-laguntzak ezinbesteko tresna dira beren proiektuak garatzeko denbora jakin bat behar duten artisten garapenerako. Diru-laguntzek diru-sarrerak lortzeko beste bide batzuk bilatzeko premia arintzen duen zenbateko ekonomiko bat emateaz gain, prestigio eta aitopen artistikoaren zigilu bat ere badira. Azken lau urteetan nolabaiteko hobekuntza adierazten duten datuak ditugu: denboran gehiago hedatutako azterketa batek egoera makurragoa adieraziko luke emakumeen presentziari dagokionez. Baina ezinbestekoa da ikerketa horiekin jarraitzea azken urteotako joera mantentzen ote den egiaztatzeko.

Edozein laguntza mota eskatzeko garaian, oraindik agerikoa da genero aldetiko desberdintasuna, hainbat modutara adierazten dena. Deigarriena zera da, emakumeek laguntza eta diru-laguntza gutxiago eskatzen dituztela kulturaren esparruan gizonekin alderatuta (% 40 inguru), eta hainbat arrazoi direla medio gerta daiteke hori: emakumeek beren prestakuntza amaitu eta denbora gutxira beren karrera alboratu egiten dutela edo beste lan-irteera batzuk bilatzen hasten direla, ohiko ekoizpenean aparteko denbora eskatzen duten hautagaitza horiek prestatzeko denbora gutxiago dutela edo kultur sistemako androzentrismoaren ondorioz horiekin lotutako motibazioa emango luketen erreferenteak falta direla.

Azkenean zera gertatzen da, zenbateko gutxiagoko diru-laguntza gehiago eskatzen dituztela eta gizonak gehiengoa dira zenbateko handiko laguntzetan. Hori laguntza horiek eskatzen diren sektore motaren arabera ere azal daiteke: ikusmen-arteetan onartzen diren laguntza, beka eta diru-laguntzen kasuan, emakumeek % 57 inguru eskuratzen dute eta ikus-entzunezko arteetan (oro har, bolumen ekonomiko handiagoko proiektuak eskatzen dira) gutxiengoa dira eta, esate baterako, ez da % 20ra ere iristen gidoiak idazteko laguntzak eskatzen dituzten emakumeen portzentajea.

Emakumeak ikusmen-arteetan eta ikus-entzunezkoetan EAEn izeneko txostenaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren Arte Plastiko eta Ikusizkoetarako 2013 eta 2015 bitartean eskatu ziren diru-laguntzen % 45,8 emakumeei eman zitzaizkien, nahiz eta azkenik laguntzen % 54,2 jaso. Deigarria izaten jarraitzen du zenbatekoak gora egin ahala

emakumeek egindako eskaera kopuruak eta onartutako laguntza kopuruak behera egiten duela. 2015ean, emakumeek 5.000 euroko hamar diru-laguntzetatik bost eskatu zituzten, eta 8.000 euroko hamar diru-laguntzetatik lau. 12.000 euroko bekak eskatu zituzten pertsonen artean soilik % 27 dira emakumeak. Haatik, emakumeek eskatzaileen masan duten pisua kontuan izanik legokioketena baino proportzio handiagoan eskuratzen dituzte laguntzak: 5.000 euroko laguntzen % 58 jaso zituzten, 8.000 euroko laguntzen % 45,9 eta 12.000 euroko laguntzen % 28,6.

Beste kasu berezi bat da Eremuak programarena, hori ere Eusko Jaurlaritzarena, arte garaikideari laguntzekoa. Laguntzak eskatzen dituzten emakumeen portzentajea mantendu egiten bada ere, emakumeek egindako proiektu hautatuen kopurua jaitsi egin da, 2013an % 50 eskasekoa zena. Hori eskatzaileen artean gizonen proportzioak gora egin duelako gertatzen da. Horrela, 2014an, emakumeek egindako proiektu hautatuen portzentajea % 35ekoa baino ez zen. 2010 eta 2015 bitartean emakumeei onartutako diru-laguntzen batez bestekoa % 40,1ekoa da.

Tokiko mailan, Bizkaiko Foru Aldundiak 2013-2016 bitartean onartutako laguntzen % 63 emakumeei onartu zitzaizkien. Haatik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, 2013-2016 bitartean emandako bost beketatik, lau emakumeek jaso zituzten. Bestalde, Bilboko Udalak emandako bekak modu txandakatuan banatu dira gizon eta emakumeen artean, 40/60ko proportzioan.

Artista hasiberrientzako laguntzen programetan paritaterako joera bat ikusten da, are zenbait kasutan onartutako beken kopurua bat dator ikasketak egiten dituzten emakumeen portzentajearekin. Nabarmendu behar da laguntza mota horietan emakumeen eskaerak ere gehiago direla. Horrek adierazten du beren ibilbide profesionalaren hastapenean emakumeek oraindik ez diotela muzin egin artearen munduan ibilbide profesionala urratzeari.

Ertibil-Bizkaia programak pintura, grabatu, argazkilaritza eta DVD-Bideo arloko artistak laguntzen ditu udal erakusketa-aretoetan. 2013-2016 bitartean 374 eskaera aurkeztu ziren. Horietatik % 56,9 (213) emakumeek eginak, beraz, presentzia handiagoa da azken urteotan. Joera positiboa laguntzen emakidan ere islatzen da; % 60,5 emakumeek egindako obretara bideratzen dira eta lan onenei emandako sarien % 75 ere emakumezko artistentzat dira. **Artista Hasiberriak** programan badirudi joera baikorra dela 2013-2014 bitartean, izan ere, hautatutako zazpi pertsonen artean bi emakume izatetik hautatutako zortzi pertsonen artean bost izatera pasatzen baitira 2015-2016 bitartean.

Atzeriko egonaldietarako laguntzei dagokienez, gehienak emakumeei ematen zaizkie, % 66,7 Wrocław-Donostia Egoitzaren programaren kasuan 2014-2015 bitartean. Halaber, handiagoa da Etxepare Euskal Institutuaren laguntzen kasuan. Azken horretan, gainera, emakumeei emandako zenbateko ekonomikoa handiagoa da (1.218 euro emakumeei eta 1.129 euro gizonei). GetxoArte programak kontrako joera izan du; 2013. urteaz geroztik hautatutako pertsonen artean emakumeen ordezkariak % 61,2tik % 54,9ra jaitsi da 2016an. Urte hartan gainera ez zen emakumerik izan epaimahaian.

| Onartutako laguntza, diru-laguntza eta bekak EAEn | Emakumeak (%) | Gizonak (%) |
|---|---------------|-------------|
| Arte Plastikoak Eusko Jaurlaritza | 54,2 | 45,8 |
| Eremuak | 40,9 | 59,1 |
| Bizkaiko Foru Aldundia | 64 | 27 |
| Gipuzkoako Diputazioa | 80 | 20 |
| Bilboko Udala | 50 | 50 |
| Ertibil-Bizkaia | 56,9 | 43,1 |
| Getxoarte | 51,9 | 49,1 |

Iturria: Guk geuk egina *Emakumeen presentzia ikusizko eta ikus-entzunezko arteetan* izeneko txostenetik abiatuz. 2016

Ikus-entzunezko sektorean laguntzak Eusko Jaurlaritzatik datoz nagusiki. Emakumeak % 19,7 baino ez dira gidoilarien eskabideen kasuan, izaera nominala duten bakarrak, laguntzen % 24,2 jasoz. 30 urtetik beherako adin-tartean onartutako laguntzen % 56,6 emakumeei emandakoak dira. Horrek erakusten duenez, ikusmen-arteetan gertatzen den moduan, karreraren hastapenetan artistek ez dute ukorik egin eta oraindik ez dute galdu beren buruarekiko konfiantza, ezta sisteman gainekoa ere, denboran aurrera egin ahala printzipio androzentrikoetan oinarritzen dela adierazten duen sintoma argiak erakutsiko dituelarik. Ikus-entzunezko ekoizpenari emandako gainerako laguntzen kasuan ere emakumeak gutxiengoa dira; % 20,1 animazioan, % 25,4 dokumentalean, % 35,8 fikzioan eta % 32,8 TV Movie izenekoan. Zenbaki horiek % 32ko batez bestekoa uzten du emakumeen kasuan.

Interesgarria izango litzateke antzeko ikerketa bat egitea beste sektore batzuetarako, esate baterako, literatura, musika eta arte eszenikoen kasuan, izan ere, ez dago kulturaren beste sektore batzuetan onartutako laguntza eta diru-laguntzei buruzko informaziorik.

- **Sariak**

Laguntza eta diru-laguntzekin gertatzen denaren aurka, normalean hastapenetan babes bat behar duten artistei ematen zaizkienak, sariak ibilbide kontsolidatua duten pertsoneri ematen zaizkie, eta emakumeentzat zailagoa izaten da sariak eskuratzea. Laguntza, beka eta diru-laguntzen azterketan adierazi den moduan, hasieran ia paritatea dago (alde batera utzita gehiengoa direla arte-eskoletan), baina adinak aurrera egin ahala beren ibilbidean atzera geratzen dira pixkanaka. Emakumezko artistak gutxiengoa dira sari horiek guztiak eskatzerakoan. Hori dagoeneko ez da soilik justifikatzen konfiantzarik ezarekin, baizik eta beren ibilbidean zehar igaro behar izan dituzten oztopoekin, horren ondorioz askok etsi egin baitute.

Emakumeei onartutako zenbait laguntzen kopuruari beha baikortasunerako arrazoiak egon badaitezke ere berdintasun arloari so, esperientzia profesionalak eta denboraren

joanak erakutsiko dute hori ilusio hutsala baino ez dela. Laguntzak eta diru-laguntzak jaso ostean jarraitu beharreko urratsa erakusketak egitea da, hori baita lanari ikusgarritasuna emango diona; haatik, errealitateak erakusten duenez, EAEn antolatutako erakusketa gehienetan gizonetzkoen lanak erakusten dira eta gutxi dira beren heldutasunean diren artistei ematen zaizkien sariak jasotzen dituzten emakumeak, sari horiek funtsezkoak direlarik artelanari ikusgarritasuna emateko. Sarien portzentajeak ibilbidean aurrera egin ahala emakumeen presentzia gero eta murriztagoa dela erakusteko beste adierazle bat dira.

Ikusmen-arten esparruan, emakumeek jasotako sarien batez bestekoa % 26,7koa da. EAEn prestigio gehien duenari erreparatzen badiogu, hots, Eusko Jaurlaritzak ibilbide baten aitortzari ematen dio Gure Artea sariari, emakumeen eskaerak 2002-2008 bitartean % 36,7 izan ziren (151 eskaera 411tik). Zenbaki hori Eusko Jaurlaritzaren laguntzak eta diru-laguntzak eskatzen dituztenekin alderatuz (% 45,8) hamabi puntu azpitik dago. 2002 eta 2010 bitartean emandako sarien batez bestekoak erakusten duenez, portzentaje gailena gizonetzkoena da, izan ere, sarien % 80,1 gizonek jasotzen dituzte. Haatik, azken urteetan doikuntza bat gertatu da, eta 2010-2015 bitartean saria jaso duten emakumeen portzentajea % 46,2koa izan da.

Arteko adarrei dagokienez, soilik Eusko Jaurlaritzak emandako sariak kontuan hartuz, zenbakiak are etsigarriagoak dira. Euskadi Literatura Sarietan, urtero euskarazko eta gaztelaniazko literatura-lanetarako eta euskarazko haur eta gazte literaturarako ematen direnak, 2012-2016 bitartean 14 sari eman dira modalitate horietan: 10 gizonentzat izan ziren eta lau emakumeentzat (% 29). Musika Bulegoa sariek ibilbide oso laburra dute, bi edizio baino ez dira ospatu. Dena den, nabarmendu behar da guztira banakako sei sari eman direla eta bakarria jaso duela emakume batek (% 17).

Bekak eta laguntzak jasotzeko sariketa eta hautaketa-batzordeetako **epaimahairen osaera** erabakigarria izan daiteke horiek emateari begira; epaimahaietan zenbat eta gizon gehiago egon, orduan eta handiagoa da artea begirada androzentriko batekin epaitzen jarraitzeko arriskua.

Emakume eta Gizonen berdintasunerako EAEko VI. Planeko G12 puntuan diru publikoarekin finantzaturako sariketa eta laguntzetako epaimahaietan paritatea egon behar dela adierazten bada ere, hori ez da beti betetzen. Halere, datuek paritaterako joera bat erakusten dute. Eremuak programan epaimahaiko kide diren emakumeak % 40 izan ziren 2010-2015 bitartean; 2013an soilik izan ziren gizon baino emakume gehiago, hamarretik zazpi. BilbaoArte laguntzen hautaketan, epaimahaiko kide gehienak gizonak dira. Aztertutako gainerako epaimahaietan (Gure Artea eta Musika Bulegoa) paritaterako joera bat hautematen da eta, are, emakume gehiago izatekoa. Haatik, deialdi jakin batzuetan ez da emakume bakar bat ere egoten, halaxe gertatu zen 2016ko Getxoarten. Azken hiru urteetako literatura-sarietan, emakumeen portzentajea % 43koa da eta gizonena % 57koa. Musika Bulegoa sarietan hiru emakume eta bost gizon izan dira 2016ko epaimahaietan eta lau eta lau 2017koan.

- **Enplegua eta karrera profesionala**

Kulturaren sektorearekin zerikusia duten karreretan unibertsitate-ikasketak amaitzen dituzten emakumeen portzentajea % 62 ingurukoa bada ere, sektore horretan EAEko enpleguen % 47 baino ez dituzten emakumeek betetzen Miradas ikerketaren arabera. Ikerketa horretan Kultur arloko Arte eta Industrietako Estatistikako datuen irakurketa analitikoa egiten da.

Kontratazio kopurua EAEko kulturaren sektorean % 39,9 hazi zen 2011-2015 bitartean. Haatik, emakumeen kontratazioari dagokionez, 2013an % 48,4tik % 55,2ra igo ostean, % 46,8ra jaitsi zen 2015ean *Emakumeen presentzia ikusizko eta ikus-entzunezko arteetan* izeneko ikerketaren arabera. Kontratazioaren hazkunde horretan **denborazkotasuna** da ezaugarri nagusia (kontratuen % 64,5 egun bakarrekoak dira). Ezaugarri horrek bi sexuetan eragin bera du. Ikerketa horretan bertan adierazten denez, EAEko kulturaren sektorean enpleguaren demanda antzekoa da gizon nahiz emakumeen kasuan: 2013-2015 bitartean enplegu-bulegoetan inskribatutakoen artean % 50,3 emakumeak ziren eta % 49,7 gizonak.

Emakumeek sektorean bizi duten desabantailazko egoera ere nabaria da **soldata-arrakalari** so. Hala, EAEn kulturaren sektoreko emakumeen soldata baxuagoa zen (% 19,4ra arte), *Emakumeen presentzia ikusizko eta ikus-entzunezko arteetan* izeneko txostenean adierazten denaren arabera, 2011ko Lan Merkatuaren Zentsuko (LMZ) datuetatik abiatuz. Desberdintza horren arrazoiaren artean lan berdinarengatik emakumeek soldata baxuagoak ordaintzeko joera soziala, eta **lanaldi partzialeko** enplegua daude. Azken horri dagokionez, EAEn emakumeen % 77,5 dira lanaldi horretan daudenak. Enplegu mota hori zaintzarako denbora gehiago izateko asmoz aukeratu ohi da, eta ordainsari hobeko lanpostuetara jotzea zailtzen du.

Sektorean ematen den bereizketa horizontala, hein handi batean, emakume eta gizonek bete ditzaketen lanei buruz dauden aurreiritzietatik eratorzen dira. Ikus-entzunezko sektoreari so, emakumeen presentzia handiagoa da tradizionalki femininotzat jo izan diren lanetan: makillajea eta ile-apaindegia (% 100) eta joskintza (% 75), baina portzentajeak amildu egiten dira zuzendaritza postuetan (% 30), ekoizpeneko postuetan (% 40) edo dekorazioko postuetan (% 40); distantzia hori are handiagoa da sormenezko jardueran, esate baterako, gidoiak eratzeko eta musika konposatzeko zereginetan. Bestalde, gizonak kamera, soinu eta argiztapeneko espezializazio teknikoetan aritzen dira batez ere.

Adina da emakumeek sektore profesional guztietan bizi duten diskriminazioa areagotzen duen beste aldagai bat. Karrera profesionalaren hasieran (soldata baxuagoak direnean) gizon eta emakumeen arteko enplegu-tasa oso antzekoa da EAEn, eta 35 urteko adinera arte emakumeen **okupazio-tasa** apur bat handiagoa da gizonena baino, 72,4 eta 69,5ekoa, hurrenez hurren, 2015eko Estatistiketako zenbakien arabera. Adin horretatik aurrera zenbakia jaisten hasten da, hain zuzen, karrera profesionala kontsolidatzen hasi eta soldata handiagoak eskura daitezkeen unean. Seme-alaba kopurua da EAEko lan-sektore guztietan emakume askorengan modu negatiboan eragiten duen beste faktore bat. Ondorengotza zenbat eta ugariagoa

izan, orduan eta handiagoa da okupazioari dagokionez emakume eta gizonen artean dagoen distantzia. Hala, 2015ean 7,4 puntukoa zen seme-alabarik ez zuten pertsonen kasuan eta 16,5 puntukoa bi seme-alaba edo gehiago zituzten pertsonen kasuan, 2015eko Estatistiketako datuen arabera.

| ZUZENDARITZA POSTUAK KULTUR ARLOKO INDUSTRIETAN EAEn, 2015 (%) | Emakumeak | Gizonak |
|---|-----------|---------|
| Ikusmen-arteak | 50,3 | 49,7 |
| Ikus-entzunezko arteak | 23 | 77 |
| Arte eszenikoak (antzerkia, jaialdiak) | 26 | 74 |
| Arte eszenikoak (programatzaileak) | 32,4 | 67,6 |
| Musika (banda, orkestrak, programatzaileak) | 24,2 | 75,8 |
| Argitaletxeak | 29,9 | 70,1 |
| Liburu-dendak | 66,4 | 33,6 |
| Diskoetxeak | 25 | 75 |

Iturria: Guk geuk egina, Kultur Industriari buruzko estatistika txosteneko datuekin

Bereizketa bertikala. Euskadiko kulturaren sektorean lan egiten duten emakumeen batez bestekoa % 47koa da, baina **zuzendaritzako postuetan** portzentaje hori % 37,1era jaisten da. Kultur Industriari buruzko estatistika-txostenean adierazten denaren arabera, musikaren esparruan (bandak, orkestrak eta programatzaile pribatu eta publikoak) zuzendaritzan diren emakumeak % 24,2 dira ikusmen-arteetan, % 50,3, ikus-entzunezkoetan, % 23 arte eszenikoetan, % 26 antzerki eta jaialdien zuzendaritzan eta %32,4 programatzaile modura lan egiteko zuzendaritza-postuetan, liburu-dendetan % 66,4, argitaletxeetan % 29,9, diskoetxeetan % 25. Emakumeek soilik ikusmen-arteetan eskuratzen dute paritatea eta liburu-denden sektorean gehiengoa dira. Sektore horretan emakumeak dira negoziaren jabeak.

Ez dago daturik emakumeen **ekintzailetzaren** tasari buruz kulturaren sektorean. Erreferentzia modura EAEko Jarduera Ekintzailearen Indizea hartzen dugu, 3,1ekoa dena emakumeen kasuan eta 3,6koa gizonen kasuan. Dena den, aipagarria da emakumeen tasak zortzi hamarren egin duela behera 2011-2015 bitartean, eta gizonen tasak lau hamarren egin duela gora.

- **Denbora eta zaintza**

Hasieran aipatu bezala, eremu probatuan berdintasun urrikoak diren jarduerak mantentzen direnez, emakumeek zaintzan eta etxeko lanetan jarraitzen dute. 2015eko Cifras analisiaren arabera, emakumeek askoz ere denbora gehiago ematen dute etxeko lanetan gizonekin alderatuz, 2,1 ordu eguneko eta 1,2 ordu eguneko, hurrenez hurren. Halaber, askoz ere denbora gehiago ematen dute seme-alaben eta mendeko beste pertsona batzuen zaintzan, egunean 4,5 ordu hain juxtu, eta gizonek 2,9 ordu ematen dute egunean.

Txosten berean agertzen diren datuei so baterako erantzukizunak EAEn ez du baikor izateko arrazoirik ematen: amatasunagatiko prestazioen % 94,7 emakumeek kobratu dituzte eta seme-alabak edo senitartekoak zaintzeko eszedentziak emakumeek eskatzen dituzte gehienbat. Hala, 2015ean seme-alabak zaintzeko eskatu ziren baimenen % 93,3 emakumeek eskatu zituzten, eta senitartekoak zaintzeko eskatutako baimenen % 83,2.

Denbora gutxiago izatea ere eragozpena da **kultur arloko ondare eta zerbitzuetara iristerakoan**, izan ere, argi dago etxeko lanetan eta zaintzan zenbat eta denbora gehiago eman, orduan eta denbora gutxiago dagoela aisiarako. Halere, emakumeak oraindik kontsumitzaile nagusiak dira kultur arloko ia zerbitzu guztietan.

Lanaren banaketa ezberdinaren eta zaintzako lanetan gizonen aldetik erakusten den baterako erantzukizunik ezaren ondorioz, gainera, emakumeek gizonek baino denbora gutxiago izan ohi dute beren **karrera profesionala** garatzeko, izan ere, prestakuntza jasotzen jarraitzeko denbora gutxiago dute eta baita lan-harremanak ereiteko ere harreman-sareak funtsezkoak diren sektore batean, non harreman horietako asko ohiko laneko ordutegietatik kanpo egiten baitira: erakusketen inaugurazioak, filmen estreinaldiak, liburu-aurrezpenak, etab. Horrek lan arloko sustapena eta garapena zailtzen du, eta soldata-arrakala sakondu egiten du.

2.3. DESBERDINTZAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE HARTZEAN

Orain artean eremu profesionalean aurkitutako desberdintzak goi karguen okupazioan ere islatzen dira kulturaren eremuan, eta baita haietako erabakimen-organoetan ere. Bada paritatera iristeko ahalegin bat, Eusko Jaurlaritzako sailburuordetzen eta Aldundietako zuzendaritzen banaketan ikus daitekeen moduan. Haatik, emakumeak ez dira, inolaz ere, beren sailetako arduradunak. Haatik, hiru hiriburuetako Udaletan, gizonezko hiru alkate badaude ere, emakumeak daude kulturaren esparruko zinegotzigoak zuzentzen. Baina kargu politikoetatik irten bezain pronto, panoramak okerrera egiten du ia organismo guztietan. Kultur arloko erakunde, organismo eta ekitaldi gehienak gizonek zuzentzen dituzte. Eta museoetako patronatuak eta kultur arloko beste erakunde batzuk gizonez daude osatuta gehienez (zenbaitetan % 80 baino gehiago).

Egoera ez da hobea Unibertsitatean, izan ere, bertan gizonezkoak gehiengoa dira irakasleen artean eta katedradun emakumeak % 22 baino ez dira. Elkarte profesionaletan berdintasunerako joera bat ikus daiteke exekutiboetako kideen artean eta asko dira presidente modura emakume bat dutenak.

- **Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailean** gizonezko Sailburu bat, gizonezko sailburuorde bat eta emakumezko sailburuorde bat daude. Gainera, zazpi zuzendaritzetatik hiru emakumeek betetzen dituzte eta lau gizonek.
- Kultura, Hizkuntza eta Kirol Sailaren baitako **kultur organismoetan**: Euskadiko Orkestra, Euskal Herriko Gazte Orkestra, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea eta Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusia eta Etxepare Euskal Institutua kontuan hartuta, soilik azkeneko bietan aurkituko ditugu emakumeak buruan, lehenengo hiruetan gizonak daude kargu horietan.
- **Aldundiei** dagokienez, Arabako Foru Aldundian gizon bat dago buruan eta emakumea da Euskara, Kultura eta Kirol arloko Foru Diputatua. Gipuzkoako Foru Aldundian gizon bat dago buruan, eta Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Sailaren buruan gizon bat dago, eta emakume bat Kultura Zuzendaritzan. Bizkaiko Foru Aldundiko Ahaldu Nagusia gizonezkoa da, Euskara eta Kultura Diputatua emakumea da eta Kulturako Zuzendaritza Nagusiko burua gizona.
- Hiru hiriburuetako (Donostia, Bilbo eta Gasteiz) kultur arloko zinegotzigoetan emakumeak daude.
- **Aholkularitza- edo erabakimen-organoetan** nagusiki gizonak daude eta haien parte hartzen dute, salbuespenen batekin: Etxepare Euskal Institutuaren Patronatua 6 gizon eta 5 emakumez dago osatua. Bilboko Arte Ederretako Museoetako Patronatua 11 gizon eta 2 emakumez dago osatua, Guggenheimeko Patronatua 20 gizon eta 4 emakume daude, eta Artium Fundazioaren Patronatua 9 gizon eta 5 emakume; Euskadiko Gazte Orkestrako Patronatua hiru emakume eta gizon batek osatzen dute.

- EAEko Unibertsitateetako **irakasle eta ikerlariei** dagokienez, Hezkuntza Ministerioaren 2015-2016 ikasturteko estatistiken arabera, Humanitate eta Arteetako euskal fakultateetan eskolak ematen dituzten 476 irakasle eta ikerlarien artean 265 gizonak dira eta 211 emakumeak, hau da, irakasleen % 56 gizonak dira; katedradunen artean soilik % 22,14 dira emakumeak. Gauza bera gertatzen da EAEn ematen diren Master ofizialeko ikastaroekin, irakasle gehienak gizonak baitira.
- **Kultur eremuetako** (museoak, auditorioak, kultur zentroak, antzokiak) erabakietako partaidetzari dagokionez ere desberdintza agerikoa da; Euskal Herriko lau Museo nagusietan (Gasteizko Artium, Bilboko Arte Ederren Museoa, Bilboko Guggenheim Museoa eta Arabako Arte Ederren Museoa eta Donostiako San Telmo Museoa) soilik Donostiakoan dago emakume bat buruan. Euskadiko Filmategiaren zuzendaria gizona da, Euskadiko bost antzoki nagusiak gizonak zuzenduta daude, eta Euskaltzaindian sekula ez da emakume bat egon presidente gisa. Lurraldeko Arte Zentro eta erakusketa-areto garrantzitsuenei dagokienez, gehiengoetan emakumeak daude buruan, esate baterako, Azkuna Zentroan, BilbaoArte, Tabakalera, Bilboko Rekalde Aretoan edo Gasteizko Montehermoso Kulturgunean. Joera hori alderantzizkoa da EAEko kultur ekitaldi nagusien zuzendaritzari erreparaturik: DSS2016 Fundazioan (Donostia Kultura Hiriburua), Donostiako Zinemaldian, Jazzaldian, BBK Life Jaialdian edo Azkena Rock Jaialdian gizonak daude buruan, guztietan.
- Euskadiko emakumeen presentzia eta partaidetza sektoreko **elkarte eta elkargo profesional** nagusietan aldatu egiten da diziplinaren arabera. Euskal Idazleen Elkarteko presidentea eta presidenteordea emakumeak dira, baina Zuzendaritza Batzordeko beste lau kideak gizonak dira. Euskal Herriko Musikarien Elkarteko presidentea emakumea da eta Zuzendaritza Batzordean paritatea dago. Euskal Herriko Gidoilarien Elkarteko zuzendaritzan bost gizon eta bi emakume daude, horietako bat presidenteordea delarik. Euskadi eta Nafarroako Musikagileen Elkartean ez dago emakumerik Zuzendaritza Batzordeko sei kideen artean. Euskadiko Ikus-entzunezko Enpresen Klusterreko Zuzendaritza Batzordeko 20 kideetatik 6 dira emakumeak, eta ZineUskadiko presidentea emakumea da eta hartako Zuzendaritza Batzordean bost emakume eta bost gizon daude. Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteko presidentea emakumea da eta hartako Zuzendaritza Batzordea emakumez osaturik dago gehienbat.
- Bestalde, gutxi dira **berdintasuna sustatzen duten erakundeak kulturaren sektorean**. Dena den, Ikusmen-arteetako Emakumeen elkarteko nazionalaren jardura nabarmendu behar da, Euskadin hartako eragileak hainbat kanpaina burutzen baititu Euskadiko museo eta arte-zentro ezberdinetan. Estatu mailan, era berean, Kulturaren berdintasuna lortzeko Emakumeen Elkartea (Clásicas y Modernas y CIMA), Emakume zinegileen Elkartea eta ikus-entzunezko hedabideak lanean dihardute berdintasunaren alde; eta Euskadin Plataforma A nabarmendu behar da.

2.4. ARAU SOZIALEN ETA BALIOEN ERAGINA

Ugalketa eta ekoizpen lanketa eta funtzioen banaketari dagokionez, eremu pribatuan, emakumeen esku dago oraindik. Aurreko atalean ikusi den moduan, emakumeak dira familia-ingurunea artatzeaz eta etxea kudeatzeaz arduratzen direnak nagusiki. Horrek kulturara sartuz norbera gehiago garatzea ekiditen du. Sektoreko profesionalen kasuan horrek artearen eta kulturaren alorrean jarduera profesionalera eskaintzeko denbora gutxiago izatea dakar eta baita sustapenerako aukera gutxiago izatea.

Androzentrismoak kulturaren duen eraginaren ondorioz, hots, gizona mundua irudikatzen duen subjektu gisa azaltzearen ondorioz, hainbat mendez kultur edukia sortu izan duten emakumeei entzungor edo ezikusia egin zaie gizonezkoen sormenaren mesedetan. Horrek azaltzen du zergatik antolatzen diren gizonezkoen erakusketa gehiago, baita arte garaikidea jorratzen duten zentroetan ere. Munduko museo guztietako bildumetan gizonen lanak gailentzen dira -adibide bat ipintzearen, Prado Museoak emakumeen 57 lan baino ez ditu 7.941 piezako bilduma batean- eta oraindik gutxiengoak dira museo handietan emakumezko artistei eskainitako erakusketak. Hori dela eta, museoetan ikusten ditugun emakumeen irudiak ere gizonen sortutakoak dira; emakumeei oso gutxitan eman zaie beren historia kontatzeko aukera.

Ezagunak eta ugariak dira **bi artistek erakusgai ipintzean protagonismoa utzi** eta bigarren maila batean geratu **behar izan diren emakumeen** kasuak, gizonaren luzimendu eta garaipenerako, eta normalean kasu horietan bere izena "-ren bikotea" aipamenarekin joaten da; besteak beste, Camille Claudel eta Auguste Rodin, Lee Krasner eta Jackson Pollock, Sonia eta Robert Delaunay eta Frida Kahlo eta Diego Rivera. Artearen beste eremu batzuetan dauzkagu Simone de Beauvoir eta Jean Paul Sartre, Ana Magdalena eta Johann Sebastian Bach edo Alma eta Gustav Mahler. Hori gainerako arteetara ere eraman daiteke; asko dira gizonezkoen goitizenekin sinatu behar izan duten idazleek kasuak; Brontë ahizpak, Amantine Dupin- George Sand izenarekin ezaguna- Mary Ann Evans bera George Eliot izan zen eta Espainian Cecilia Böhl de Faberrek Fernán Caballero izenarekin sinatzen zuen. Eta aipatutako izenetan erreparatuta hori dagoeneko iraganeko kontua dela badirudi ere, ezinbestez ekarri behar da gogora Harry Potter sagako egilea den J.K.Rowling idazlearen kasua, izan ere, 90eko hamarkadan bere argitaletxeak gizonezko baten izenarekin sinatzeko eskatu zion, izan ere, ez zuen uste haur eta gazte literaturako publikoa emakume batek idatzitako liburuak erosteko prest egon zitekeenik. Kontu jakina da oso gutxi direla zinema eta antzerkiko zuzendariak, eta dramaturgo eta gidoilari edo musikariak diren emakumeak, hainbat mendez horien sormenak irudikapen eta ekoizpen artistikorako modukoak ez zirela uste izan baita. Azken urteotan asko bultzatu da emakumeek idatzitako literatura, baina hori funtsean merkataritzako arrazoi baten ondorio da, hots, kontsumitzaile gailen modura emakumeak dituen liburuaren merkatu bati irteera emateko premiaren ondorio. Baina presentzia hori ondoren ez da aitortzen eta kritiketan islatzen, ezta eskuliburu akademikoetan edo sari-banaketetan ere. Halaber, garrantzitsua da nabarmentzea arte-kritikari gehienak gizonak direla. Horrek, are gehiago zailtzen du emakumeek egindako artea ikusgai ipintzea. Azkenik, adierazi behar da emakume sortzaileen inguruan audientzia ezberdinetan eragin biderkatzailea

izan lezaketen ikerketa, argitalpen edota dibulgazio-hitzaldien bidez ikertzera bideratutako baliabideak urriak direla.

Ikastetxeetan oraindik ez da curriculuma egiaz berrikusi unibertsitate-ikasketetan nahiz unibertsitatez apartekoetan kulturaren esparruan emakumeen erreferenteak gaineratzeko xedez. Hori ere ez da lagungarri irudi historiko horiek hedatu edo berreskuratzeko, ezta arte garaikidea berdintasun-irizpideekin azaltzeko ere. Aitzitik, artearen historia hainbat mendetan idatzitako kanonei jarraiki ikasten da oraindik, testuzko eskuliburuetan ahaztura historiko hori mantendu egiten da eta unibertsitateko irakasle gehienak gizonezkoak direnez, kulturaren ikuspegi androzentrikoa ere mantendu egiten da.

Horrenbestez, Euskadin kultura ekoitzi eta prestakuntza eskaintzeko zentroak desberdintza ezaugarri duen sistema bat betikotzen ari dira, non emakumeen ordezkaritza oso gutxietsia dagoen. Kulturak eta arteak lurralde baten iruditeria osatzen badute, argi dago ezinbestekoa dela lan gehiago egitea.

Genero aldetiko **estereotipoak eta aurreiritziak** oraindik oso agerikoak dira kulturaren esparruan. Historikoki emakumeak baztertu egin izan dira esfera publikotik eta etxeko esparrura eta ugalketa-zereginetara mugatu izan dira. Joera horrek oraindik pisu handi du gure gizartean, ikasketen hautua eta ondorengo karrera profesionalaren diseinua baldintzatuz. Horrek, hein handi batean, azaltzen du emakumeak gehiengo izatea arte eta humanitateetan; ikaskuntza horiek karrera "errazagotzat" hartu izan dira beti, eta eskola eta familietatik ikasketa horien alde egitera bideratu dira emakumeak. Kezkagarria da, era berean, emakumeek tekniko eta zientifikoagoak diren karrerei muzin egitea. Aurreiritzi hori artearen esparruan ere ematen da, bereziki ikus-entzunezko arteetan, izan ere, argi eta soinuen lanbide teknikoetan, makinistako postuetan edo museo eta agertokietako muntaketa-lanetan oraindik gizonak hautatu ohi dira gehienbat. Aitzitik, museoetako erakusketetako koordinatzaile gehienak emakumeak dira, izan ere, antolaketa eta komunikaziorako trebetasunak eskatzen dituen eginkizun modura hartzen da.

Behin ikasketak amaituta, humanitateetan lizentziatzen diren emakumeek gehien hautatzen duten irteeretako bat irakaskuntzarena da, izan ere, lanbide horrek artistaren karrera ezegonkorak baino segurtasun gehiago eskaintzen du eta kulturaren kudeaketan baino lanpostu gehiago ere bai. Gainera, familia-bizitzarekin kontziliazio handiagoa ahalbidetzen du. Hori emakume gehienek berezko betebeharrak gisa dute barneratuta eta horren erakusle da amatasun-baja, eszedentzia eta lanaldi murriztu ia guztiak emakumeek eskatzen dituztela. Kultur arloko lanbide askok lanaldi luzeak, ordutegi irregularrak eta kanpora joateko premia eskatzen dute. Horren ondorioz, ez da erraza izaten lan horiek eremu pertsonalarekin eta familiakoarekin uztartzea.

Aurreiritzi horien ondorioz, era berean, emakumeek sortutako lanak gutxietsi egiten dira. Sozialki zabalduetako ustea da gizonak "arte unibertsala" egiten duten bitartean emakumeek "emakumeen artea" edo "arte femeninoa" egiten dutela. Termino hori zentzu gutxiesgarrian erabili ohi da kasu gehienetan eta arte-merkatuak emakumearen lana gutxietsia dakar, hainbeste ezen gizonezko artistengatik ordaintzen dena baino

hamar bider gutxiago kotizatzen iritsi baitaiteke. Egun gehien balioetsitako egileen zerrendan 34. postura arte jo behar da emakume bat aurkitzeko. Antzeko zerbait gertatzen da literaturarekin. Emakumeek idatzitako liburu gehienak "chic lit" modura kalifikatzen dira, edo kasurik onenean "emakumezko literatura" modura, eta horrek beti literatura apalagoko kutsua izaten du.

Azpitarragarria da adin txikiko neskatoek beren egunerokotasunean ez dutela erreferente femeninorik; kultur arloko informazioa urria da eta ia ekitaldi handien berri baino ez da ematen eta, ikusi dugun moduan, gizonak dira gehienetan horietako zuzendari eta protagonistak. Musika da, ziurrenik, gazteak gehien erakartzen dituen jardura. Baina emakumeen ordezkari buruzko atalean ikusi dugun moduan, emakumeek programazio osoaren % 15 baino ez dute hartzen. Horrek mezu jakin bat igortzen du, hots, rocka, popa eta egungo musikaren adierazpide guztiak gizonentzat direla oraindik. Ideia hori berretsi egiten da jardun kultural modura musika jotzen duten gizonen portzentajea erakusten duen datuari so, % 21,57. Emakumeen portzentajea % 9,9koa da, Kulturaren Euskal Behatokiaren 2016ko Kultura Ohituren Panelaren arabera.

Kultura industrietan lan arloko presentzia txikiagoa da emakumeen kasuan, modalitate artistiko guztietan ere egile gisa presentzia txikiagoa da eta botere-zentroetan emakumeen ordezkari beti txikiagoa da. Egoera horrek azaltzen du emakumeek bizitza kulturean ikusgarritasun asko ez izatea. Eta ikusgarritasuna dutenean, gehienetan gizon baten baitan dagoen emakume bat irudikatzen da, paper garrantzitsurik betetzen ez duelarik. Horren apalak diren minimo horiekin zaila da gizartearen aitortza eta aitortpen ekonomiko egokia lortzea.

Horrenbestez, ezinbestekoa da, gizarteak oro har eta kultura arloko erakundeek zehazki, egiazko berdintasuna bultzatzea, iraganeko erreferente femeninoak berrekura ditzatela, arestian aipatutakoen modukoak, egungo emakumezko egileak bultzatzea eta herri baten historia biztanleriaren erdiak soilik ezin duela kontatu ulertzeko moduan gara dezatela heziketa.

2.5. BERDINTASUNAREN ARLOKO BERARIAZKO AGINDUAK:

| BERDINTASUN ARLOKO AGINDUAK | TRESNA JURIDIKOAK |
|---|---|
| <p>Zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadila sustatu behar da.</p> | <p>4/2005 Legearen 23.1 artikulua 3/2007 Lege Organikoaren 26 2d artikulua 160. ardatza ABPE 2014/2016</p> |
| <p>Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadila sustatzea profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakundeen zuzendaritzako organoetan. Xede horretarako, beste jarduera batzuen artean, ordezkapen eskasegia duten zuzendaritza-organoetan emakumeen presentzia handitzea ahalbidetuko duten neurriak hartzearen arabera dagozkien diru-laguntzak egokitu ahal izango dituzte.</p> | <p>4/2005 Legearen 24.1 artikulua 3/2007 Lege Organikoaren 26 2d artikulua</p> |
| <p>Ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.</p> | <p>4/2005 Legearen 24.2 artikulua</p> |
| <p>Lege honetan aurreikusten diren helburuak lortzeko jarduerak gauzatzen dituzten elkarteak bultzatuko dituzte</p> | <p>4/2005 Legearen 24.3 artikulua</p> |
| <p>Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko lan egiten duten irabazi asmorik gabeko erakundeak erabilera publikoko gisa deklaratu ahalko dira,</p> | <p>4/2005 Legearen 24.4 artikulua</p> |
| <p>Emakumeek eta elkartegintza mugimenduak gizarte, ekonomia eta kultur arloko politiken garapenean modu efektiboan parte hartu ahal izateko atxikimendu askeko bide bat eskainiko duen erakunde bat sortzea, eta erakunde hori euskal administrazio publikoekin emakume eta gizonen arteko berdintasunaz mintzatzeko solaskide onargarria izatea sustatuko du.</p> | <p>4/2005 Legearen 26.5 artikulua</p> |
| <p>Beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonen parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela kultura-jarduera guztietan. Debekatu egiten da emakumeek gizonetik berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea guneko publikoetan.</p> | <p>4/2005 Legearen 25.1 artikulua, eta 3/2007 Lege Organikoaren 26.2 b artikulua OE.5 PEIO 2014/2016</p> |

| BERDINTASUN ARLOKO AGINDUAK | TRESNA JURIDIKOAK |
|--|--|
| <p>Kultura-jardueraren batean –hor sartuta jai-kutsukoak, artistikoak, kirolekoak, eta euskararen normalkuntzaren arlokoak– sexuaren ziozko bereizkeria egiten bada, ezin izango diote jarduera horri inolako laguntzarik eman, edo ordezkariak ezin izango dute jarduerotan administrazioaren ordezkari gisa parte hartu.</p> | <p>3/2007 Lege Organikoaren 25.2. artikulua.</p> |
| <p>Ekintza positiboko neurriak hartzean emakumeen sorkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektualaren alde, elkartruke kultural, intelektual eta artistikoa, nazionala nahiz nazioartekoa, ahalbidetuz, eta eskumeneko organismoekin hitzarmenak sinatzea.</p> <p>Jaialdiak, sariketak eta literatura, zientzia, musika, zinemagintza, ikus-entzunezko edo artearen esparrutan emakumeen ekarpenak ezagutaraztera modu monografikoan dedikatutako bestelako espazio edo ekitaldiak sustatu eta horien garapena babestea.</p> | <p>3/2007 Lege Organikoaren 26.2e artikulua</p> <p>156. ardatza ABPE 2014/2016</p> <p>163. ardatza ABPE 2014/2016</p> |
| <p>Emakumeen ekoizpen eta sorkuntza intelektual, artistiko eta kulturean desberdintzako egoera zuzentzeko beharrezkoak diren ekintza positibo guztiak.</p> | <p>3/2007 Lege Organikoaren 26.2f artikulua</p> |
| <p>Agintaritza publikoek, beren eskumenen barruan, ahalegina egingo dute emakume eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren eta aukera-berdintasunaren printzipioa egiazkoa izan dadin sorkuntza eta ekoizpen artistiko eta intelektualarekin eta haren hedapenarekin zerikusia duen guztian.</p> | <p>3/2007 Lege Organikoaren 26.1. artikulua</p> <p>158. ardatza ABPE 2014/2016</p> <p>159. ardatza ABPE 2014/2016</p> |
| <p>Emakumeen eta gizonen ordezkarietza orekatua duten epaimahaien edo antzeko organoen ehunekoa handitzea.</p> <p>Ahalegina egitea Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak ematen dituen sarietan sariak emateaz arduratzen diren Epaimahaietan osaera orekatua izan dadin.</p> | <p>G12.1 VI. EGBP</p> <p>160. Ardatza, ABPE</p> |

3. LEGERIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKOA

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako

Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako EAEko VI. Plana.

Berdintasunerako VII. Plana eraketa-fasean

ESTATUKOA

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen artean Benetako Berdintasuna lortzekoa

Aukera Berdintasunerako Plan Estrategikoa 2014-2016

EUROPAKOA

EUROPA 2020. Hazkunde zentzudun, iraunkor eta integratzailea lortzeko estrategia. Batzordearen komunikazioa. Brusela, 2010.3.3 BATZ(2010) 2020 amaiera.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako konpromiso estrategikoa 2016-2019

Euskadiko 2014-2020 EGEF Programa Operatiboa

4. DATUEN ITURRIAK

| ADIERAZLEAK ETA DATU GILTZARRIAK | ITURRIA | ALDIA |
|--|--|--------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> • Enplegua kulturaren sektorean sexu eta sektoreka • Enplegua kulturaren sektorean sexu eta funtzio profesionalaren arabera | Arteen eta Kultura-industriren 2015 Estatistika Txostena | Bi urtean behingoa |
| <ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Museo eta Arte-zentroek antolatutako erakusketak | Emakumeen presentzia ikusmen eta ikus-entzunezko arteen eremuan. EAE 2016 | Irregularra |
| <ul style="list-style-type: none"> • Ikus-entzunezko ekoizpenei buruzko datuak generoaren arabera EAEn • Antzerki-ekoizpenei buruzko datuak generoaren arabera EAEn • Ekoizpenei buruzko datuak | Ez dago | |
| <ul style="list-style-type: none"> • Kultur-jarduerak sexuaren arabera EAEn | Ohituren Panela Kulturalak. 1. sorta | Urtean behingoa |
| <ul style="list-style-type: none"> • Paperen banaketa sexuaren arabera zineman eta telebistan. Estatu mailakoa | Emakumeek telebistan eta zineman duten presentziari buruzko azterlana. AISGE 2017 | Irregularra |
| <ul style="list-style-type: none"> • Aisia aktibo eta pasiboa sexuaren arabera EAEn | Denbora Aurrekontuen Inkesta. EUSTAT 2013 | |
| <ul style="list-style-type: none"> • Genero aldetiko desberdintza arte eszenikoetan. | Espainian 2014an izandako antzerki-estrainaldietan genero aldetiko desberdintzari buruzko azterlana Asoc. Clásicas y Modernas | Irregularra |

| ADIERAZLEAK ETA DATU GILTZARRIAK | ITURRIA | ALDIA |
|--|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Kulturarekin lotutako ikasketa-tasa | <p><u>Emakumeen presentzia ikusmen eta ikus-entzunezko arteen eremuan. EAE 2016</u></p> <p><u>Cifras Hombres y Mujeres 2016.</u></p> <p><u>EAE n matrikututako ikasleak, titulartasunaren, mailaren, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera, 2015-16 ikasturtean</u></p> | <p>Irregularra</p> <p>Urtean behingoa</p> <p>Urtean behingoa</p> |
| <ul style="list-style-type: none"> • Bekak, diru-laguntzak eta laguntzak eta sariak ikusmen-arteetan eta ikus-entzunezkoetan. | <p><u>Emakumeen presentzia ikusmen eta ikus-entzunezko arteen eremuan. EAE 2016</u></p> | <p>Irregularra</p> |
| <ul style="list-style-type: none"> • Karrera kulturalak ikasten ari diren emakumeen portzentajea | <p><u>Arteen eta Kultura-industriren 2015 Estatistika Txostena</u></p> <p><u>Emakumeen presentzia ikusmen eta ikus-entzunezko arteen eremuan. EAE 2016</u></p> | <p>Urtean behingoa</p> |
| <ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen okupazio- eta enplegu-tasa EAE n sexuaren eta adinaren arabera | <p><u>Cifras Mujeres y Hombres en Euskadi 2016.</u></p> | <p>Urtean behingoa</p> |
| <ul style="list-style-type: none"> • Karrera kulturalak ikasten ari diren emakumeen portzentajea | <p><u>Cifras Mujeres y hombres en Euskadi 2015</u></p> | <p>Urtean behingoa</p> |
| <ul style="list-style-type: none"> • Bereizketa horizontala kulturaren sektorean EAE n | <p><u>Miradas. Arteetako Estatistiken irakurketa analitiko bat... (2015)</u></p> | <p>Irregularra</p> |

5. ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK

5.1 AZTERLANAK ETA TXOSTENAK

- AISGE (2017). [Emakumeak Espainiako telebistan eta zinema-aretotan 2014 – 2016 bitartean hedatuako fikziozko ekoizpen espainiarretan izandako presentziari buruzko azterlana](#)
- CLÁSICAS Y MODERNAS (2015). [Berdintasun-txostena arte eszenikoetan: Zentro Dramatiko Nazionaleko programazioaren eta zuzendaritzako taldeen analisia.](#)
- CLÁSICAS Y MODERNAS. SGAE FUNDAZIOA (2015-2016). [Non daude emakumeak?](#)
- EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (2015). [Kultura- eta sormen-industriak Euskadin](#)
- [Emakumeak Euskadiko ekoizpen artistikoan.EMAKUNDE \(1994\).](#)
- EMAKUNDE (2011). [Bertsolaritza berdintasunerako bidean. Emakunderen aldizkaria, 81. zenbakia, 2011ko uda](#) EMAKUNDE (2016). Cifras Mujeres y Hombres 2015.
- EMAKUNDE (2017). [Cifras Mujeres y Hombres 2016.](#)
- HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA (2016) [2016/2017 ikasturtearen datuak eta zifrak](#)
- KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA (2013) [Arte eta Kultura Industriak. 2013ko estatistika-txostena.](#)
- KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA (2015) [Begiradak, Arte eta Kultura Industrietako Estatistiketako datuen azterketa analitikoa.](#)
- [Kultura ohituren Panela, 1. Sorta. KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA \(2015\).](#)
- KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA (2016). [Kultura-ohituren panela, 2. Sorta.](#)
- KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA(2016). [Emakumeen presentzia ikusmen eta ikus-entzunezko arteen eremuan.](#)
- UNESCO (2015). [Genero-berdintasuna. Ondarea eta Sormena.](#)

5.2 WEB BALIABIDEAK

- [AGETECA, Kultura kudeaketaren datu-basea.](#)
- [BERNARDO ESTORNÉS FUNTSA. Emakumeak Euskal Herriko festetan.](#)



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER